

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Joxe Eizagirre Artetxe Salbide

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1907-1995)*

Aurkibidea



Biografia



Bere aitonak Salbiden zeukan terrenoan baserria eraiki zuen 1885ean, Salbide baserria, eta hantxe bizi izan zen Pedro. Hiru hilabetez joan zen eskolara, "Mixerikordira", baina Pedrok nahiago zuen etxekoen artean egon. Eta hala ikasi zuen bere lanbidea: baserria. Hasierako urteetan, esnea eta haragia ziren baserriak ematen zituen produktu nagusiak. Gero, baratze lantzen hasi ziren. Barazkiak plazan saltzeaz gain, herriko hoteletan ere banatzen zituzten. Plazara bere emazte itziartarra joaten zen, Francisca Martija Osa. Sei seme-alaba izan zituzten: 3 mutil eta 3 neska. Pedro hiltuna zen oso, eta bertsozalea ere bai: zientoka bertso zekizkien buruz. Aizkora eta sega zituen oso gustuko. Azken horretan oso ongi aritzen omen zen. Korrika ibiltzea ere gustatzen zitzaion, eta apustulariei laguntzen ibiltzen zen. 1995. urtean hil zen arte, Pedrok Salbideko baserrian pasa zuen bizitza osoa. "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987an. urtean.

Zintak

ZAR-115

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria Eizagirre, Imanol
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria Eizagirre, Imanol

Pasarteak

1. Zarauzko garai bateko tailerrak eta fabrikak

- **Erref:** ZAR-115/002
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Zarauzko kaleak garai batean nolakoak ziren deskribatzen du: zer tailer eta fabrika zeuden, zer denda, zer familia bizi ziren...

Transkripzioa

Geo hortikan abitu, ta hortik ze [...] dezu? Hor kale-kalian gauza taillerrik eta ez zan. Ze tailler izango zenun? Akaso baten batek txutxein bat iten zun, zulon bat eo izango zan, baiño besteik ez. Geo hortikan sartzen zea Santa Mariljña kalea, ta Azpizutarrak, alegiya, Joxe Ramonenekuak; geo Pedro Mai ta're bai, oiñ'e hor dakae taillerra. Hoyek, bikote hori, ta hoyek, bikote hori dala konpaziyo bateako, geo handikan hurrena eiten dezu, ba, tela-fabrika Berasaiñeko hori, tela-fabrika hori. Tela-fabrika hori kontra, len esan deuna, hoyek Orbegozotarrana, zea hori, Zumarra jun zian hoyek, hoyekin txinuetar hoyek Orbegozo hoyek fundiziyua ein zen. Bestaldetikan, espaloian bestaldetikan, Aerraxun taillerra: lenbizi Aerrexun taillerra egin zan. Geo taillerra in zanen, haren kontrako etxe haundi hori in zuen, Letamendineko etxe hori. Geo aurea etortzen zea, ta aurea etorri, ta beste Xaguaneko ta itxe hoyek bai, baiña hoyek ez due inportantzik izango. Hoyek daue kale hortan bi aldetatik zianak, ta Laudianon erreroteya, len esan dana, erretoreya, Laudianon erreroteya, sutei hori, burniko lan hori. Hunuzka atzea etortzen zea, ta paso-nibeleko kontra etortzen zea, ta buelta iten dezu, ta Itxetxu herrera, Miel Etxetxunekua... Danenanekeo taberna nola zan? Han eoten zan Etxetxa herrera: haure tripaundi bat, lodi bat, ardua gustatzen zitzayon, baiño hoge bat baso ardo eango zun eunen harek. Ta objeto hortakua tripaundi hura. Ta handikan gora bueltatzen zea, ta Ziotzanekuan ta kontra, len esan deun Beraistegiñeko tailler hori, tailler hori, ta hori Berbistaiñen taillerra. Geo aurea etorri, ta ez dago, zu Zigordi kalea sartzen zea han, ta Zigordi kalia, gue etxetan ta bezela, beyak eoten zian. Biraolanekua ta nola zuen? Han'e beyak zian, aldameneko oain Leokadioneko dun etxia nola hura? Makatzanekua zan hua. Makatzanekuak saldu ziyon Leokadiori, han'e beyak eoten zian. Beste hau're txiki bat, Iraingo Errena eo ez dakit nola esaten ziyoen, han'e beyak. Ta bestia geo, Kukulunekuak zian hurrena Gaztakaneko etxen, Gaztakanekon etxen, Kukulunekuak. Geo, zea, Patximayanekuak, bai, Patxi Luzenekuak beste aldetikan, zeatikan, Toreouxaxitikan itxia ta nola? Han, Patximayanekuak. Baiña hayek'e beyakin e! Dana nekazaya zan orduan. [...] Geo hortikan aurea etortzen zea, ta zeak eukitzen duena, beste itxe txikiyak nola dao zea hoyek? Bizitzen dia hoyek, Urdaingarain eo nola hoyek? Zea ta ibiltzen due, limonada ta zea ibiltzen due ba? Hoyek bizi zian etxe hortan Caballero ta bizitzen zian geo, Ayatik eta etorri, eta Caballero ta hoyek zian oain dala hirurogeita hiru o lau urte igual, Caballero mutil koxkorra zan behintzat ta, ni baiño urte gutxiyo du, eta hoyek zian hor. Aleran gora abitu, ta Pantxonekuak nola neskazarrak denda hor hariya ta zea eukitzen zuen? Han sagardoteyak zian, Pantxok sagardoteya eukitzen zun Sonbrero zuriya ta zinta beltzekuakin bea, eleantia zan hua gizona oso, oso gizon amerikanua ta eleantia ta. Geo Errekondonekuak ta hoyek. Beste aldetik, berriz, leno esan deuna: oain nola do Xiprinekua ta hori? Ta bestia hotel Navarro Arozenan aldamenen. Han jesuitak eoten zian, jesuitak, Zautzen eskolako jesuitak e? Eskolak ematen zituen jesuitak. Ordun ibili zian danak

eskolan ikasitakok dia, gutxiyo geyo. [...] Jesuitak eon zien. Geo hayek alde in zuen, ta hurrengo butzaldiya, hurrengo motzaldiya izan zan, gu bezelakuen tartia, txarra izan zan.

2. Jesuiten "matematikak"

- **Erref:** ZAR-115/003
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:05:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Urteberri goiz batean, jesuiten txabola erori egin omen zen. Eta jesuita bat falta zen. Baina kontua zen bere burua kontatzea ahaztu zitzaiola jesuitari.

Transkripzioa

Ta hori, len zana, jesuita hoyek eon zianen'e, hau're ipuriya da ba. Ipuriya esanda ber dezue noski ta. Jesuita hoyek Urte Berri goiz baten, mezeta jun zortzitako mezeta, erten giñanen, erten giñanen, erori in zala jesuitetako txabola. Jun gea saltaka, ta jun gea saltaka, ta jesuitak honenbeste kontatzen zituen, hainbeste jesuita, honenbeste jesuita, hau, bat, bi, hiru, lau kontatu zituen, ta bat palta. Bat palta, bat palta... Ta fuego harri-kentzen ta zakar-kentzen ta txabola erorita han. Ta in ahalak in, ta jesuitik billatzen ez. Hori earra zan, ta billatzen ez, in ahalak inda, jesuitik. Oin dala hirurogeita pare bat urte eo hola da hori, kontu hori zala. Txiliku ume jaioberri xamarra, geo Txilikura jun zian hayek Txiliku zarretik; eta Txiliku zarren zian zian arte. Ta gu orduko sasoiko mutillak esate bateako, ta in ahalak billatzen ez gure jesuita hori... Zer ta kontua, ta beste danak kontatzen, ta bere buruik ez kontatzen, kontatzen ai zen horrek. Ta geo baten batek hortan: "heorren burua kontatu al dek, ba?", jesuita horrei baten batek. "Koiño, ta egiya", ta bueno, ta hoi zan; geo danak hoi zan [...]. Hoik pasatzen zian leno're istoriyak e? Segi ta segi hura kontatzen, [...] horri're kontau, ta [...] hark kontatzen zunian, bestek geldi, danak geldi, ta hori pasa zan. Ta geo jesuita hoyek hortik alde in zuen, ta hola izan zan istoriya, hoyek istori hoixe zian hor.

3. Zarauzko tailerrak

- **Erref:** ZAR-115/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Zarautzen zer denda eta tailer zeuden azaltzen du.

Transkripzioa

Ta Ariñek, Arindarrak geo in zuen tailer hori; hori geo indakua da. Beste

gaiñuntzen herriyan bueltan, hor beste gaiñuntzen esan dizuet Eizagirretarrak nola zuen kalen, zean, kamiyuan, lenoko San Pelayoko zarren zuen Eizagirretarrak zea hori, Izeta Eizagirre, zea hori, Txerri Buztanenekuak, eta Boni Kapaxak eta hoyek. Ta geo hoyek Alfa in zanen Alfa alde in zuen; ta zeak'e bai, Beistaindarrak'e bai, Alfa alde in zuen hoyek. Aerrexuk eta hor seitu zuen. Asieske azken arte beak, Naxario ta hoyek partitu zian zea hoyek, laukotia eo zian soziyuak, hiltzoriyan danak zian hor. [...] Ze esango dizut ba gero? Beste gaiñuntzen, hor Manutarrak'e bai San Pelayo alden dauke hoik taillarra. Ta hoyek'e leno hemen hoyek nun arrayo zuen hoyek [...] bizitza? Ta geora in zuen, ta hua in zala're urte asko da. Ta beste Manu, Prontxio zarra ibilitzen da hor oaiñ'e larogeita zortzi urte dituna, eo hamar'e baditu honezkeo. Ta hoyek zean zuen, frontoien aurreko hortan, Kukuluk taberna nola daka? Hortxe zuen hoyek taillerra. Eta San Pelayo alden taillerra itia, eta hor ez dakit zenbat habitaziyo Ilario Haundiyak hartu ta in zizken hoyei. Hoik danak, hoyek hoyek goguan dazkat, egiya esan, nola izaten dian kontuak. Ta hori, ba ixtori hoyek dia.

4. Herriaren merkataritza- eta aisialdi-antolaketa

- **Erref:** ZAR-115/009
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Zarautzen lehen dolare bat zegoen, eta gerora leku horretan sagardotegi bat jarri zuten. Zarautzen egon zen beste sutegi bat ere aipatzen du. Leku horretan zeuden denda gehiago aipatzen ditu. Herriaren antolaketari buruz hitz egiten du. Frontoia egin zenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

Konpaziyo bateako, Santa Mariña kalia, Xoaxolanian, tolaria eoten zan, eta geo tabernak jarri zian. Tolaria izan zan lenbizi; beyakin etortzen Soasolatik. Soasolanekok noiz etorri zian akordatzen naiz ni: Andrexek’e ni baiño bi urte geyo ditu, ta nik hamarren bat urte, horrek hamabin bat urte o hola etortzen hoyek Saasolatik. Ta oain larogeita... larogeita bat dauzka Andrexek, larogeita bat, bigarrena [...], bi ingo ditu oain gaiña. Ta hoyek Soasolatik etorri zian, eta geo sagardoteya , ta geo taberna hori ta geo jarri zituen. Baiña beyak eta zazkala saardoteya eukitzen zuen hoyek. Hoyek istoriya. Zeak’e bai euki zun herreroteya, Antxuarrein etxia bakizu zein dan, Barrentzonen parian, Joxe Juakiñ eo Antxon txoferra nola zan? Harek euki zun, herreroteya euki zun, suteya harrek euki zun. Ta hoyek hortako sutei txiki bat eo etxe koxkor bat, eo azpiko suteiya. Geo tarte hortan, tarte hortan leno ez zan ezer’e esateko. Esan dizut, ba, hermanuak nola billatu eziñik? Zuen osabak eta nola daue? Hoyek, hoyen toki hori dana hermanua zan dana hori Xipriñena ta aurreko hortako Zigordi kaleko dana, esateko. Ta geo sartu zien hor taillerrak iten zuen osabak eta zea hoyek, Arruti Arrutitarrak, zea, Xiriakonekuak eta Pepe Kaxinto, eo hola; ez banao oker izango o, Miel Kaxinto zan mutil zar horren anaya, ta hoyek

zian horkuak dana ziharo. [...] Ta hoyek in zituen geo zeak’e bai, han daka oaiñ’e garajia, Illarramendik, Altxolanekua dan horrek, Moesto Illarramendik’e. Ta hoyek danak hor balantza hortan iñak daue, oain dala hirurogei urte eo lentxuo, eo danak tankera hortakuak dia. Zea’re bai, hoyek zea eukitzen due, pintura eo ze eukitzen due? Baxarri esaten ziyuen, ba, Loiola, Loiola, hoyek’e bai, ta hoyek danak dia hor hirurogei urte pasatako o horko balantzako lanak danak dia hoik danak ziharo. Geo, dana ez dizut kontatu, ez, egiya esan, ta oaindikan’e badazkau. Hoyek baiño lenagotik, aurretik in zuen Errustaneko frontoia, Frontoi Noizpait. Hori zean zeon, Errekondoneko denda nola? Haren parian entrada zun, barrua sartzen zan. Koperatibako etxia nola dao? Ilario haundiyak indakua nola dao lenbiziko hori? Horren atzetik, hori horren atzetik Frontoi Noizpaitera sarrera zan. Frontoi libria zan e? Tapatu [...], Frontoi Noizpait. Geo dema-plaza ta danak zitun harek, Erraustatarrak in zuen hura, Frontoi Noizpait, bai, bai, Frontoi Noizpait eiten zuen [...]. Geo hau modernua, hau gero in zan. Hau gure etxia ta in ta geoxiokua da; ziharo urte juxturik ez dakit, baiña hau, behar baldin bada, izango dia nik itxia in zanen, hori in zanen, hamasei urte eukiko nitun. Oain larogeigarrenian ta, ba, in zazu kontua “mil novecientas veinticuatron” iña, ta, ba, hamabostetik hamaseira, o hamasei urteko balantzan neon. Frontoi hau geoxio inda da, baiña frontoia ein zala’re egizu kontua, ba, hortxe, hirurogei urteko balantza ber du; ta hor jarriya euki ber de estadistika, jarriya zeola aitu nun, baiña ez diyot behiñ’e kasuik ez diyot hartu, horrenbeste [...] ez diyot hartu. Herriyan hoyek danak holaxe zian, ta frontoia ordun hua in zanen, gauza ikaragarriya uste genun, ta geo hua kaka zarra baiño okerro. Bestia itxi’re in zan, frontoia, zea, modernua; hau modernua da, hura Noizpait zan neomoderno: frantsesak in zun haren hargintzan, ta akordatzan naiz hori. Geo soziedantiak izan prantseza bea, ta Ulazia nola, zea, igeltserua? Eoten zian Nikolas ta Biaiñi Motza, ta Kajutei ta hoyek danak barruan ziala zan hor, Linterneo Txikiyak aurreko puntan, Linterneo Txikiyan zarran anaya zan hor diruduna: Tolosan zan, oain Ameriketan ta izandakua. Ta hua izango zan potentia, noski, ta orduan in zan frontoi hori. Hoyek danak [...], beste gaiñuntzen hor, kale hori ez zan, kale hori tope jotzen zun, hori Odiozolaneko ta nola taillerra? Harekin tope gelditu, ta akabo gelditzen zan hori. Hola estrate txiki bat bazun honunzko tarten, oin nola dao zea hori... koiño... nola esaten zaiyo... Kaja de ahorrosa ez, beste zea hori... Dios! Ixkiñan do, ba, hura! Dios... telegrafua! Telegrafua! Ta haren [...] hola eskrito txiki bat zun, baiña beste birian, Txabilloneko ta taberna atzetikan nola zeatzen zan, Fraileta aldetik sartzen zeanian kamiño zarra ez dala, Santa Marina kamiñua ez dala, beste bide bat? Oaiñ’e han do, bire hori oindik itxi gabe dao. Hoyek bakarrik zian orduko ixtori guztiyak. Nola izaten dan. Hemen Zauzko gorabehera guztiya.

5. Ospakizun ugari Zarautzen

- **Erref:** ZAR-115/011
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Orduan herrian izaten ziren festak aipatzen ditu. Arrantza nolakoa izaten zen azaltzen du; eta arrantzara joan behar ez zenean, dantzaldi ugari egiten ziren Zarautzen. San Pelaiotan prozesioa eta festa izaten zen. Ama Birjinak ere ospatzen ziren. Euskal Jaiak 20. hamarkada inguruan hasi ziren ospatzen, eta ordutik arrakasta izan dute. Inauterietan zer egiten zen azaltzen du.</p>

6. Erlijioa lehen

- **Erref:** ZAR-115/012
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

14 urte bete arte, igandero joan behar izaten zuten bezperetara. Aitonak arrosarioa esateko agintzen zien. Zarautzen egondako bikarioak aipatzen ditu.

7. Mojari buruzko anekdota

- **Erref:** ZAR-115/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Behin itulan ibili ziren, eta moja batekin batera aritu ziren lanean. Handik astebetera, moja hura irten egin zen komentutik. Gerora, neskame sartu eta ezkondu egin zen.

8. Umetako lanaren ordutegia

- **Erref:** ZAR-115/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

10 urterekin lan egiten zuenean zer ordutegi izaten zuen azaltzen du.

9. Aitonaren heriotza

- **Erref:** ZAR-115/017
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Aitona hil zenekoa kontatzen du.

10. Anaiaren soldadutza

- **Erref:** ZAR-115/019
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:35:53. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Anaiari soldadutzara Afrikara joatea tokatu zitzaion. Han zela, Afrikako gerra handia izan zen. Azkenean, anaiari zergatik tokatu zitzaion bi urte egotea (eta ez hiru) azaltzen du.

11. Soldadutzan hilabete gutxiago

- **Erref:** ZAR-115/020
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Donostiara ardoa saltzera joaten zen. Soldadutzan hilabete gutxiago egotea nola lortu zuen azaltzen du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com